

Giza eta Gizarte Zientziak eta Pedagogia euskaraz

Jaione Apalategi Begiristain

Hezkuntza eta ikastetxeen erakuntzan aditua. Oteiza Fundazio-Museoko patronokidea

Orain arteko esperientzia

Pedagogia zientziarekin dugun esperientzia 1977tik datorkigu. Deustuko Unibertsitatean egin genituen Pedagogia ikasketak. Euskaraz, bakarrik, hautazko bi irakaskai egiteko aukera izan genuen. Irakasle gehienak jesuitak izaki, Lagundiaren eraketa-garaiko pedagogian eta *Ratio Studiorum*en (1599) oinarritutako ikaskuntza-metodoak erabiltzen zituzten. Ezaguna den bezala, laurogeiko hamarkadatik aurrera, hezkuntza-paradigma berrien eraginez, jo eta ke ari dira berritzen, besteak beste, irakasteko eta ikasteko metodoak (<http://www.durangojesuitak.org/>).



30 urtetan zehar, unibertsitateko hezkuntza-tituluen irakaskuntza eta ikerketa inguruetatik ehundu dugu guk Pedagogia zientziarekiko dugun esperientzia, euskara oinarrian hartuta beti. 1994an irakurri genuen tesia euskaraz. Geroztik, Pedagogiaren ikergaiak diren hezkuntza- eta heziketa-egitateekin zerikusia duten eremu legal, erreal eta zientifikoetan egin den euskarazko ekoizpena desberdina izan da. Lehenengo bietan, hau da, araudi-mailan eta, bereziki irakaskuntza-ikaskuntzaren eragileen aldetik, nabarmen hazi da euskaraz idatzitako kalitatezko ekoizpena. Baina hazkunde hori ez da gertatu Pedagogiaren eremu zientifikoaren kopuru-mailan, bai ordea ekoizpenen kalitatean.

XXI. mendearen hasierarekin batera, Pedagogiako eremu zientifikoko geldialdia eta nahastea nabarmenagoak egin dira. Arrazoietakoa bat, ingelesa lehenetsi beharreko hizkuntza bezala agertu izana da, non, ekoizpen-egileen erdigunean kokatzeaz gain, bere erabileraren bertutea sinetsi beharreko fede baten antzera praktikatzera behartzen dituen. Giza eta Gizarte Zientzietan ez ezik, beste guztien jomugan ere dagoen hizkuntza bilakatu da.

Aldi berean, inoiz ez bezalako kalitatea duten artikuluko zientifikoak egiten dira euskaraz, eta baieztatu daiteke ingelesaren gain hartzeak ez duela zergatik euskara eta beste edozein hizkuntza hankapean hartuko, bakoitzak bere oin-zorua baduelako. Are gehiago, euskarak ez du arerio menderatzaile bezala ikusi behar inongo erdararik, baina horretarako ongi funtsatu beharko ditu bere lurralde eta erantzukizunak.

Adierazpen guztien gainetik, zientziaren lehenengo zeregina da gu eta gure kosmosaren aldakortasuna eta harremanen sarea ahalik eta modu errealean ezagutzeko ikertzea, kultura zientifikoa sortu eta partekatzeko gailuak eskura jarritz.

Begi-bistakoa da, gizartearen baitan, gaur ontzat ematen den giza errealitate batek ez duela, horregatik, betirako hilezkortasun-patenterik, eta gogoan hartu behar dugu giza garapena ez dela zientziaren ekarpenengatik bakarrik gertatzen, beste era askotako ikuspegiaren ekarpenengatik ere ematen baita.

Baina badira Pedagogiako euskarazko ikerketen ekoizpen idatzien urritasun endemikoaren bi arrazoi mardul (Apalategi, 2010: 19), askotan beste hizkuntza handiekin ere bat egiten dutenak:

- i. European Pedagogia zientzia, Bigarren Mundu Gerraz geroztik, bere burujabetasuna galtzen hasi zen, estatu eta aberrietako egitura berriek bahitu zituztelarik haren egitekoak. Horren ondorioz ez dago Pedagogiako elkarte zientifiko independenterik edo elkargo sendorik.
- ii. Pedagogia ikasketak lan-munduarekin duten ezin ikusizko hutsunea. Hezkuntza eta heziketarekin lotzen den lanbide bakarra irakaslearena da.
- iii. Egun, ikerketak merkatu-arrazoiaren aginduetara itsu-itsu bideratuak egotea. Teknologia sortzeko zientziaren metodoa izaten ari den arrakasta paregabea arriskuan jartzen ari da zientziaren beste funtzio batzuk, hots, kultura sortzeko, pentsatzen laguntzeko eta adigai berriak sortzeko gaitasunak, adibidez. Baina, bi funtzio horiek gauzatzeko, ezin dugu jarraitu ikusten zientzia aplikazio teknikoaren ekoizle ahalduna balitz bezala bakarrik, merkatu-beharretara egokitutako teknozientzia baten gailu huts bezala, gizartea kultura umezurtz eta azientifiko batean erortzeko arriskua dago, non, kontsumitzen dituen zientzi ekoizpen askoren aurrean, pasiboki jasatea eta zenbait erabilerarekiko izututa egotea besterik ez zaion geratuko patu gisa.

Hurrengo urteetako erronkak

Mundu zabaleko historian zehar sortu diren joera pedagogiko guztiek Hezkuntza pentsatzeko eta egiteko era ugarien berri ematen digute: garai preklasiko eta greziar garai klasikokoa, erromatarra, kristaua, Erdi Arokoa, Errenazimentukoa, errealismokoa, psikologia eta idealismo ildokoa, hezkuntza zientifiko eta esperimentalaren eraginpekoa, hezkuntza modernokoa zein haren ondorengoa eta garaikidea, non, horren ezaugarri nagusi, pedagogia-joera edo -dotrina ezberdinek berrikuntza pedagogiko berberekin bat egiten duten, aitortuz, gaur egungo ikaskuntzari erantzuteko ezinbestekoak direla txertatzea eskolan, besteak beste: teknologia aurreratuenak, lankidetzeta-metodo aktiboak eta ikas-komunitateen arteko sareak.

Pedagogia zientziak norbanako eta gizartearengan hezkuntza-egitatearen garapen eta balioen egokierak iker ditzake. Nahi izanez gero, baita egiaztagarriak ez diren giza errealitatearen alderdi metafisikoak ere. Ikerketa horiek edozein hizkuntzatan ekoitzi daitezke, baita euskaraz ere. Pedagogiak, euskarazko argitalpen zientifikoen kalitatea bermatzeko, hiru erronka nagusi dituela iruditzen zaigu:

1. Pedagogoen komunitate zientifiko, elkargo eta ikerketa-gune askeak eraikitzea.
2. Ikerketa pedagogikoen, agente eta jaurlaritza mota guztietatik independizatuz, gizartearen kultura zientifikoa sortzeko eta partekatzeko balio izatea.
3. Ekoizpen pedagogiko bakoitzak ongi zimenduta egon behar du Pedagogiaren historiaren gainean, ekarpenen sailkapenen jatorriak ongi ekarria egon behar du, ikerketa sustengatzen duen lekukoa besteetatik ongi bereiziz, Euskal Herrian gutxitan gertatzen den bezala. Abiapuntu sendo hau beharrezkoa da tokian tokiko hezkuntzaren errealitateari bere sustrai, enbor, adar, hosto, lore eta fruituei dagokien urtaroaren arabera ikerketa zientifikoa eskaini ahal izateko.

Edozein zientzia, aldi berean, errealitate zehatzak, orokorrak eta konparagarriak ikertzeko gauza da. Pedagogia zientzia ez da salbuespena. Ezagutza eta aurkikuntza zientifikoen ez daukate aberri jakinik, ez eta sortze-norabiderik ere, sortaldetik zein sartaldetik etor daitezke, lurralde txikietatik nola handietatik, zorionez!

Aldizkari zientifikoaren eginkizuna

Atal honi heltzeko, aldizkari akademikoetako zuzendari eta editoreek Estatu Batuetako San Frantziskon bildu eta sinatu zuten *Declaration on Research Assessment* adierazpena laburtuko dugu, orain arteko artikuluen zientifikoaren kalitatea neurtzeko praktikak aldaraziko dituen mugarria jarri duela uste dugulako (Juarez, 2015: 253-271).

Asko eta askotarikoak dira ikerketa zientifikoaren emaitza motak: artikulua, datuak eta *softwareak*, jabego intelektualak, etab.

Finantzaketa eta zientzialarien erakundeek, bai eta ikertzaile bakoitzak ere, beren emaitza zientifikoen kalitatea eta eragina ebaluatzeko gogoia izaten dutenez, ondorioz onar dezakegu ekoizpen zientifikoa doitasunez neurtu eta zuhurtasunez ebaluatzea lege-agindu bihurtu dela.

Sarritan, *Journal Impact Factor* edo aldizkarien eragite-faktorea (AEF) deritzona ikertzaileen eta erakundeen ekoizpen zientifikoa alderatzeko lehen mailako parametro gisa erabiltzen da. Thomson Reutersek dio (ibid.: 254) bibliotekariei erosi beharreko aldizkariak identifikatzen laguntzeko tresna bezala sortu zela, eta ez artikulu baten kalitate zientifikoa neurtzeko zehazki. Dagoeneko ikertzaileen artean adostasun zabala dago aitortzean AEFk hutsune batzuk dituela ikerketen ebaluazio-neurri moduan ibiltzean:

- i. Artikuluetako aipuen banaketa zehartasun handikoa du.
- ii. Oso berariazko ezaugarriak dituenek, artikulu anizkun edo ezberdinetan eta berrikuskatzen diren txosten zein oinarritzko ikerketaren arteko nahasketak atzematen zaizkio.
- iii. Argitalpen-lerroaren arabera, faktoreak manipulatu egin daitezke.
- iv. Aldizkarien eragite-faktoreak kalkulatzeko erabiltzen diren datuak ez dira gardenak ez irisgarriak jendartearentzat.

Adierazpen horren sinatzaileek, mundu zabaleko 155 ikertzaile eta 78 ikerketa-erakunde, *gomendio orokor* batzuk egiten dizkiete ikerketen ondorioen kalitatea ebaluatzeaz arduratzen diren aldizkari, agentzia, erakunde akademiko, neurketen hornitzaile eta ikertzaileei zuzenean, esanez etorkizunean:

- I. Bikoteka berrikusitako ikerketa-artikuluak argitaratzeko gai diren aldizkarien esku egongo direla ebaluazioak, eta, gainera, era ezberdinetara ekoiztutako emaitzetara zabaltzea beharko dela praktika hau, esate baterako, ikerketarako hain garrantzitsuak diren datu-basetara.
- II. Ikerketa bat bere merituegatik ebaluatuko dela, eta ez argitaratua izan den aldizkariak izan dezakeen ospeagatik.
- III. *Online* argitalpenak eskaintzen dituztenei etekin handiagoa aterako zaiela ebaluazio malguagoak eraikitzen badituzte eta horiek artikuluetako hitz kopuru, irudi, erreferentzia, garrantzi eta eraginaren inguruko adierazle berriak miaztezik sortuko direla.

Modu batera edo bestera ikerketa-ebaluazioen ardura duten guztiei praktika hau berritze aldera *gomendio orokor* bat egiten diete: ez erabiltzeko aldizkarietan oinarritutako neurketak, AEF tartean, norbanakoaren ikerketaren artikulu eta ekarpenen kalitatea neurtzeko, ezta kontratazioak, sustapenak edo diru-laguntzak erabakitzeko tresna bezala ere (Juarez, 2012: 255).

Aldizkarietako argitalpen-arduradunei *gomendio zehatz* hauek egiten dizkiete:

- I. Ikerketaren kalitatea sustatzeko orain arteko ikuspegi murrizta baztertu behar da eta AEF, neurketa-irizpide ugarien testuinguruan, beste neurbide bat bezala ikusi beharko da (<http://www.eigenfactor.org/>,<http://www.scimagojr.com/>).
- II. Artikuluaren benetako kalitatea neurtzeko, eduki zientifikoan oinarritutako adierazleak sustatu behar dira, eta ez argitaratuak izango diren aldizkariak eskaintzen dituzten estatistiketan.
- III. Artikulu-egileen lanek eskaintzen duten berariazko informazioa hedatu behar dute.
- IV. Alde batera utzita aldizkariak sarbide ireki edo harpidetzaren bidez funtzionatzen duen, erabat deuseztatu behar da artikuluaren erreferentziak berrerabiltzearen inguruko murrizketa, eskura jarri *Dedication Creative Commons Public Domain* delakoaren bitartez (<http://opencitations.wordpress.com/2013/01/03/open-letter-to-publihsers>).
- V. Artikuluaren erreferentzia kopuruei jartzen zaizkien murrizketak kendu edo gutxitu egin behar dira, baina erabiltzen diren erreferentzia guztien aipua jartzea derrigortu behar da, argi egon dadin nor den aipuaren lehen egilea.

Euskarazko aldizkariaren arazoak eta ekarpenak

Oro har, euskarazko aldizkariaren arazo eta ekarpenak beste edozein hizkuntzako aldizkariaren antzekoak izan beharko lukete. Baina ez da horrela. Euskarazko arazoak, Sánchez Carrión «Txepetx»ek (1987: 91-105) ezin hobeto azaldu zuen bezala, euskara, hizkuntza orekatu eta parekide batek bete ditzakeen zazpi funtzioetatik urrun egotetik datozkiola uste dugu guk.

Zientziaren lorpenak era askotara sortu eta zabal daitezke. Gauza bat da ikerketa bat burutzen ari den bitartean egileen hizkuntza edo hizkuntzak erabiltzea, eta beste bat, norentzako eta norengana iristeko pentsatutako ikerketa den. Izan ere, aldagai baten edo bestearen arabera, hizkuntza bat edo beste bat lehenetsi daiteke. Printzipioz, ekoizpen zientifikoaren zabalkundea ahalik eta gehienengana iritsi daitekeen hizkuntza batean egiteari oso bidezko deritzogu. Baina nola onar daiteke kalitate goreneko ekoizpenak bakarrik hizkuntza jakin batean eta *ranking* batzuetan dauden aldizkariaren bitartez, bakarrik, egin daitezkeela? Eta zer balio dute ranking horietatik kanpoko aldizkarietan argitaratzen diren ehunka lanek? Kasurik hoberenean, «etxetik ibiltzeko balioa dutela aitortzen zaie». Baina horrela jokatzeko ez da zuzena, inondik inora ere!

Euskaraz iker badaiteke, euskarazko aldizkariak beharrezkoak dira. Euskarazko aldizkari zientifikoaren ekarpena eskutada arrazoen baitan egon daitezkeela uste dugu guk, bat: euskal zientzialariaren berariazko ekoizpenen kalitatean eta euskaraz argitaratzeko gogoaren baitan; bi: nazioarteko ekarpenak euskaraz ezagutzera ematearen baitan, eta hiru: komunitate zientifiko indartsuen baitan.

Halabeharrez, egun aldizkari zientifikoek paperezko zein *online* beharrei erantzuten jakin behar dute ezinbestean, baina eskaintza hori bideragarria eta emankorra izateko, euskaraz ekoitzi eta kontsumitu nahi duten komunitate zientifikoak barra-barra sortu beharko dira, denen artean partekatu nahi duten zeruertza eraikitzeke gauza direla frogatuz.

Bibliografia

- Apalategi Begiristain, M. J. (2010): «Elkarrizketa», Hik Hasi, 151, 16-23.
Dedication Creative Commons Public Domain <<http://opencitations.wordpress.com/2013/01/03/open-letter-to-publihsers>>.
- Hameline, D. (2016): «Pédagogie – L’statut», Encyclopaedia Universalis (online), 2016ko abenduaren 3an kontsultatua <<http://www.universalis.fr/encyclopedie/pedagogie-le-statut/>>.
- Juarez, A. (ed.) (2015): «Teaching art and architecture search vs. Re-search. Educación en arte y arquitectura», *Declaración de San Francisco sobre la evaluación de la investigación (2012)*, TRLab 02, Madril, 253-269.
- Sánchez Carrión, J.M. «Txeptex» (1987): *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del Euskara y la teoría social de las Lenguas*, Gráficas Lizarra SL, Lizarra (Nafarroa).
- SAN JOSE JESUITAK IKASTETXEA (2013): *EGI 2020 Egitasmo estrategikoa*, <<http://www.durangoesuitak.org/>>.